



Ane Urkiola Alustiza
Zerbitzu zuzendaria
Ogasun eta Finantza Saila

Andre hori,

Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautuko duen Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan irailaren 9an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautuko duen Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineke eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak ogasuna izango du bere eskumenak egoki gauzatu eta finantzatzeko (40. artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du bere zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauen eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administraziokoari dagozkien arauen gainean (10.6 artikulua), eta lurraldeko ekonomiaren sustapen, garapen eta plangintzaz arduratzeko, ekonomiaren antolamendu orokorrekarekin bat (10.25 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina

onartzekoa. Honen arabera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaien artean dago laguntza eta diru-laguntzetarako araubide orokorra (1.2.i artikulua), lege bidez arautu beharko dira ogasun nagusiaren berezko gaiei dagozkien oinarritzko printzipioak eta legeari berariaz erreserbatutako gainerako kontuak (2.2 artikulua), eta VI. tituluaren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko laguntza eta diru-laguntzen araubidea jasotzen da.

Aipatzekoa da martxoaren 26ko 1/2015 Legeak aldatu zuela azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua.

Bestalde, Espainian azaroaren 17ko 38/2003 Legea onartu zen, diru-laguntzen lege orokorra. Hogeita bigarren xedapen gehigarriak Euskadiko foru araubideari erreparatzen dio, legearen aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan, Autonomia Estatutuan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat egingo dela adieraziz. Azken xedapenetako lehenengoari jarraiki, legea Konstituzioaren 149.1.13, 149.1.14 eta 149.1.18 artikuluen babesean eman zen, eta bertan zehazten dira estatuaren oinarritzko legeria diren artikulua.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikulua dioenez, sailburuek euren eskumeneko gaien gaineko lege proiektuak Jaurlaritzari aurkezteko ahalmena dute.

Euskal legeria azaroaren 17ko 38/2003 Legea egokitu behar dela-eta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautuko da.

Aztergai dugun Lege Aurreproiektuaren atariko tituluaren xedapen orokorrak jasotzen dira (1-18 artikulua), I. tituluaren diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak jorratzen dira (19-29 artikulua), II. tituluaren diru-laguntza kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura (30-34 artikulua), III. tituluaren diru-laguntzak emateko egintzak berrikustea (35-43 artikulua), eta IV. tituluaren diru-laguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak (44-47 artikulua). Azkenik xedapen gehigarria; xedapen iragankorra; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapituluaren indarrak gabe lagako dituen xedapen indargabetzailea; eta lau azken xedapen daude, besteak beste azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea aldatuko dituztenak.

Lege Aurreproiektuan badago hizkuntza aipamenik, diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak lantzen dituen 9. artikulua hirugarren paragrafoko e) idatz zatiari jarraiki oinarri arautzaileetan diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta haztapena agertuko baitira, eta “laguntzaren edo diru-laguntzaren helburua den gaiagatik hizkuntzaren erabilera garrantzitsua bada, edo azaroaren 24ko 10/1982 Legearen (Euskararen Erabilera Arauzkotezko Oinarritzkoa) 25., 26. eta 27. artikuluetan aipatzen diren jardura-eremuetakoak baldin badira gai horiek, hizkuntza-gaitasuna kontuan eduki beharko da esleipena egiteko irizpide objektiboen artean”. Xedapen honen aurrekaria azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1.c) artikuluan dago.

Aurreikuspen hori egokia izanda ere, arau berriak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Lege Aurreproiektuaren 12. artikuluan erakunde laguntzaileak jorratzen dira, diru-laguntzarekin lotutako ondorio guztietarako organo-emaikearen izenean eta haren kontura aritzen direla zehaztuz.

Hau da, erakunde publiko batek diru-laguntza emateko deialdia egiten du, eta erakunde laguntzailea erakunde publikoaren izenean aritzen da eskatzaileen aurrean. Zentzu honetan, diru-laguntzarekin lotutako ondorio guztietarako erakunde laguntzaileak erakunde publikoa ordezkatzeko du, eta logikoa dirudi erakunde laguntzaileak erakunde publikoaren hizkuntza betekizunak izan behar dituela pentsatzeak, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira. Izan ere, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Horregatik, Lege Aurreproiektuaren 12. artikuluan paragrafo berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Erakunde laguntzaileek euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatuko diete eskatzaileei, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoarekin bat.

-Las entidades colaboradoras garantizarán el derecho de las personas solicitantes a usar el euskera y el castellano, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

b.2- Lege Aurreproiektuaren 14. artikuluan onuradunen betebeharrak zerrendatzen dira, hizkuntza aipamenik gabe.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legeak hizkuntza betekizun zehatzak ezartzen dizkie euskal herri administrazioek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunei, kontsumitzaile eta erabiltzaileekin dituzten harremanen arloan (39. eta 40.4 artikulua).

Illo horretan, onuradunek euren proiektuak aurrera eramateko laguntza publikoa jasoko dutela gogoan hartuta, zentzuzkoa dirudi hizkuntza betekizunen bat izan beharko luketela pentsatzeak, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzen gaineko argitalpen, iragarki eta publizitatean behintzat. Izan ere, herritarra erakunde publikoek lagundutako jardura baten aurrean dagoenean, gutxieneko informazio bat nahi duen hizkuntza ofizialean jasotzeko aukera izan beharko luke.

Horregatik, Lege Aurreproiektuaren 14. artikuluan idatz zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskara eta gaztelania erabiltzea, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzen gaineko argitalpen, iragarki eta publizitatean.

-Usar el euskera y el castellano, en las publicaciones, anuncios y publicidad relacionados con la actuación subvencionada.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko irailaren 17an

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria